

Euskal AEko batez besteko errenta pertsonala %28 hazi zen 1997 eta 2001 artean

18 urteko eta gehiagoko Euskal AEko biztanleriaren erdiak urteko 9.063 eurotik gorako batez besteko errenta pertsonala du

EUSTATEk Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiekin lankidetzan egin duen Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistikako datuen arabera, 2001ean, Euskal AEko 18 urteko eta gehiagoko biztanleriaren batez besteko errenta pertsonala 12.676 eurokoa izan zen, lau urte lehenago baino %28 altuagoa. Arabak izan zuen errenta pertsonalik handiena, 13.266 eurokoa; gero Gipuzkoak, 13.022 eurokoa; eta azkenik Bizkaia, 12.321 eurokoa. Bilakaera lurraldeka aztertuta, Araban izan da joerarik onena eta %32 hazi da; Gipuzkoan %30 hazi da, eta Bizkaian %26.

Errenta erabilgarria kontuan hartuta, hots, guztizko errentari errentaren gaineko zerga eta langilearen konturako gizarte-kotizazioak kenduta, aldeak txikiagoak dira. Izan ere, Euskal AE guztirako errenta erabilgarria 10.800 eurokoa da, Arabakoa 11.460 eurokoa, Gipuzkoakoa 11.086 eurokoa eta Bizkaikoa 10.464 eurokoa.

Batez besteko errenta pertsonala, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (eurotan). 2001

	Euskal AE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.
Guztizko errenta	12.676	17.820	7.840	13.266	18.358	8.308	12.321	17.569	7.454	13.022	18.007	8.301
Lanaren errenta	8.466	12.243	4.917	9.349	13.250	5.551	8.120	11.878	4.635	8.675	12.417	5.132
Kapital-errenta	928	991	871	1.008	1.099	919	812	851	775	1.092	1.177	1.013
Jardueren errenta	873	1.298	473	927	1.375	490	790	1.174	434	989	1.471	533
Transferentziak	2.407	3.289	1.579	1.982	2.634	1.347	2.599	3.666	1.610	2.265	2.942	1.624
Errenta erabilgarria	10.800	14.977	6.875	11.460	15.396	7.627	10.464	14.758	6.482	11.086	15.160	7.229

Iturria: Eustat.


Adin nagusiko zazpi pertsonatik batek urteko batez besteko errentaren bikoitza dauka, eta seitik batek ez du inolako sarrerarik izan 2001ean

Errenta biztanleriaren artean banatzeari dagokionez, 1.500.000 dira nolabaiteko errenta jasotzen duten 18 urteko eta gehiagoko biztanleak, hots, %83. 18 urteko eta gehiagoko sei egoiliarretik batek, hots, biztanleriaren %17k aldiz, ez du izan inolako sarrerarik 2001ean.

Biztanleria bi zati berdinetan banatzen duen errenta zein den adierazten duen adierazlea mediana da eta 2001ean 9.063 euroko balioa izan zuen. Beraz, Euskal AEko adin nagusiko biztanleriaren erdiak urteko 9.063 eurotik gorako batez besteko errenta pertsonala du; beste erdiak aldiz, hortik beherakoa.

Guztizko errenta pertsonala⁽¹⁾ lurraldearen eta errenta-iturri nagusiaren arabera banatuz gero, lana da guztizko errentan pisu erlatibo handieneko zatia; jarraian, gizarte-transferentziak edo prestazioak.

Errenta pertsonalaren osaera, lurralde historikoaren arabera (%). 2001



Iturria: Eustat.

Errentaren %66,8 lanetik dator

Euskal AEko egoiliarrek 2001eko ekitaldian jasotako guztizko errenta pertsonalaren %66,8 lanetik etorri da, 8.466 euro batez beste. Gainerako zatia honela banatzen da: %19 gizarte-transferentzia edo prestazioetatik dator, batez beste 2.407 euro; %7 jarduera ekonomikoaren errentetatik, batez beste 873 euro; eta %7,3 kapital-errentetatik, higitarritik zein higiezinetik, batez beste 928 euro.

Datu horiek 1997koekin alderatuta, kapital-errentek guztizko errentan duten pisua %0,7 hazi da, eta jarduera ekonomikoetako errentena, berriz, %0,6 jaitsi. Laneko errentek, oster, portzentaje bera dute, %86koa; lehen transferentziak barne hartzen zituzten eta orain ere taldean datoz.


Lurraldeka, aldeak nabari dira lanaren errentek eta transferentziek guztizko errentan duten pisan: Araban, errentaren %70 lanetik dator eta %15 transferentzietatik; Gipuzkoan, %67 lanetik eta %17 transferentzietatik; eta azkenik, Bizkaian, %66 lanetik eta %21 transferentzietatik, Euskal AEko batez bestekoaren bi puntu gainetik.

Gizonezko landunek 1,5 aldiz dute emakume landunen errenta

Gizonezkoen eta emakumezkoen artean desberdin banatzen da errenta: Euskal AEko gizonezkoek batez beste 17.820 euroko guztizko errenta dute eta emakumezkoek 7.840 eurokoa, hau da, gizonezkoek emakumezkoen batez besteko errentaren bi halako dute, hots, emakumezkoek baino 9.980 euro gehiagoko errenta pertsonala.

Sexuen arteko alde hori arindu egiten da landunak bakarrik kontuan hartuz gero. Izan ere, landun gizonezkoek batez beste 21.492 euroko errenta dute eta egoera berean dauden emakumezkoek 14.267 eurokoa.

**Sexuen arteko aldeak errenta pertsonalean (gizonezkoak ken emakumezkoak),
adin-tarteka. Euskal AE. (eurotan). 2001**



Iturria: Eustat.

Gizonezkoen eta emakumezkoen errenta pertsonalen arteko alde nabarmenak 55 eta 59 urte artean ematen dira. Adin tarte horretan, gizonezkoen batez besteko errenta 19.364 euro handiagoa da emakumezkoena baino, zati handi batean adin horretako landun-tasen diferentziak eraginda.

Guztizko errenta pertsonalik handiena 45 eta 49 urte bitartean eskuratzen da: 17.739 euro, batez beste.

18 urteko eta gehiagoko guztizko biztanleriaren errenta pertsonalik altuena 45 eta 49 urte bitartean lortzen da, batez besteko 17.739 euroko errenta. Emakumezkoen kasuan batez besteko errentarik handiena 40 eta 44 urte artean (batez beste 11.605 euroko errenta) lortzen da, eta gizonezkoenean 50 eta 54 urte artean eta nabarmen handiagoa (26.593 euro).

Errenta pertsonalik altuenak graduondoko eta doktoratutzako unibertsitate-ikasketadunek lortzen dituzte

Ikasketa-mailari dagokionez, errentarik altuenak graduondoko eta doktoratutzako unibertsitate-ikasketadunek (26.945 euroko errentak; batez beste) eta goi-mailako ikasketadunek (21.636 euroko errentak, batez beste) lortzen dituzte. Batez bestekoaren azpitik daude bigarren mailako eta batxilergoko ikasketadunak (12.104 euro) eta lehen mailako ikasketadunak edo ikasketarik gabeak (7.601 euro).

Horrela, errentarik altuena jasotzen duena 45 urtetik 49rako gizonezkoa litzateke, unibertsitate-ikasketaduna eta goi-mailako kategorietan (zuzendari, gerente edo goi-mailako teknikari) lan egiten duena. Ezaugarri horiek betetzen dituzten 6.800 lagun inguru daude Euskal AEn eta guztiek lortzen dute urteko 47.267 euroko errenta batez beste.

Kontrako aldean, errentarik baxueneko taldea 18 urtetik 24rako emakumezkoena da, ikasketarik gabeak eta lehen mailako ikasketadunak, kualifikaziorik behar ez duten lanpostuetan lanean ari dinenak. 1.300 dira egoera horretan dauden emakumezkoak eta urtean 2.781 euro lortzen dituzte batez beste.

Landunek 18.678 euroko errenta pertsonala dute batez beste. Lanbideka, zuzendari gerenteek dituzte errentarik altuenak, 28.836 eurokoak; jarraian profesionalek eta teknikariek, 27.110 eurokoak. Landunen batez bestekoaren azpitik eta oso urruti daude kualifikaziorik gabeko langileak (batez beste 11.169 euroko errenta), ostalaritzako eta merkataritzako langileak (11.321 euro) eta azkenik, nekazariak eta arrantzaileak (10.728 euro).

Errenta pertsonalik handiena duen Euskal AEko udalerria Bizkaiko Laukiz da, 23.363 euroko errentarekin. Gipuzkoan, errentarik altueneko udalerria Leintz-Gatzaga da (18.094 euro), eta Araban, Zigoitia (16.923 euro). Beste muturrean, errenta pertsonalik txikienak honakoek dituzte: Bizkaian Karrantzak (8.087 euro), Araban Lapuebla de Labarcak (8.640 euro) eta Gipuzkoan Pasaia (9.879 euro).

Hiru lurralde historikoen hiriburuetakoko batez besteko errenta pertsonalak Euskal AEko batez bestekoaren gainetik daude. Lehenengo postuan Donostia-San Sebastian dugu (14.895 euro), jarraian Vitoria-Gasteiz (13.731 euro) eta azkenik Bilbao (12.881 euro).

⁽¹⁾**Guztizko errenta pertsonala:** 18 urteko eta gehiagoko pertsonako, bere lanaren errentak, jarduera ekonomikoetatik eratorritako errentak, gizarte-transferentziak edo prestazioak eta kapital higigarriagatik (banku-kontuetako interesak, bonoak, obligazioak,...) zein higiezinagatik (ondasun higiezinaren errentamendua) jasotako errentak batzearen emaitza da.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxe: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Martinez Rollon

Tel.: 36-945 01 75 36. Faxe: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es